

ISSN: 2530-6561
2019ko azaroa
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena

Andrés Fernando Herrera Herrera

2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena

Andrés Fernando Herrera Herrera
Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena](#)

Egileak: Andrés Fernando Herrera Herrera

hegoak zabalduz - 11. zk. 2019ko azaroa

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. 2030 Agendaren eta GJHen aurrekariak	7
2.1. Giza Garapena: pertsonak garapen prozesuen erdigunean	8
2.2. Milurtekoko Adierazpena eta Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH)	9
2.3. Garapen Jasangarriari buruzko Rio+20 Konferentzia	10
3. 2030 Agenda eta GJHak	11
3.1. 2030 Agenda eta GJHak eraikitzekeo prozesua	11
3.2. 2030 Agendaren definizioa eta edukia	13
3.3. GJHak, jomugak eta adierazleak	14
4. 2030 Agendaren eta GJHen inplementazioa, jarraipena eta ebaluazioa	17
4.1. Inplementazioa	17
4.2. Jarraipena eta ebaluazioa	19
5. Azken gogoetak	20
6. Bibliografia	20

Laburpena: Gizateria, gaur egun, krisi konplexu, sistemiko eta global batean sartuta dago, zeinaren aurrean erantzun sistemiko eta integrala behar den. Hain zuzen ere, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak *Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda garapen jasangarrirako* ebazpena onetsi zuen 2015ean; bertan, *Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda* eta *Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)* zehazten dira, pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan integral eta unibertsal moduan. Agenda berri honek Milurtekorako Garapen Helburuak (MGH) ordezkatu ditu, eta krisi globalari aurre egiteko aukera eman dezakeen ekimen unibertsaltzat eta izaera kolektibo eta integraleko moduan ikusi da. Dokumentu honen asmoa 2030 Agendaren eta GJHen eraikuntza, inplementazio eta ebaluazio prozesuko elementu nagusiei buruzko hausnarketak egitea da; betiere, ikuspegi kritiko batetik, bai haren puntu positiboak nabarmentzen eta baita izan ditzakeen mugak zein diren adierazten ere.

Hitz gakoak: 2030 Agenda, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH), Garapen Jasangarria, Milurtekorako Garapen Helburuak (MGH).

Abstract: Humanity, at the moment, is immersed in a complex, systemic and global crisis, to which an equally systemic and integral response is required. Precisely, the General Assembly of the United Nations adopted in 2015 the resolution *Transforming our world: the 2030 Agenda for Sustainable Development*, which defines the *2030 Agenda for Sustainable Development* and *the Sustainable Development Goals (SDGs)* as an integral and universal plan of action, in favor of people, the planet and prosperity. This new agenda, which replaces the previous one of the Millennium Development Goals (MDGs), is considered one of the truly universal initiatives, with a collective and integral nature, that can allow us to face the global crisis. In this regard, the purpose of this document is to make brief notes on the main elements of the process of construction, implementation and evaluation of the 2030 Agenda and the SDGs, trying, from a critical perspective, to highlight its positive points and point out its possible limitations.

Key words: 2030 Agenda, Sustainable Development Goals (SDGs), Sustainable Development, Millennium Development Goals (MDGs).

1. Sarrera

Azken urteetan gizateriak askotariko arazoei aurre egin behar izango dio. Arazo hauek gizarteari, ekonomiari, erakundeei eta ingurumenari eragiten dieten eta bata bestearekin lotuta daudenak dira, interdependentek dira alegia. Arazo horiek denboran zehar, baina batez ere XX. mendearen bigarren erditik aurrera, sortu ditugun egitura eta sistema sozialen funtzionamendu okerraren ondorio dirudite. Ikuspegi kritiko batzuetatik, uste da arazo horiek guztiek, multzo bakarrean bilduta begiratzen bazaie, *krisi sistemiko eta global konplexua* osatzen dutela, edo, modu gogorragoan esanda, *krisi zibilizatorioa* (Lander, 2011). Krisi global horren aurrean, ekintza partzialak, dimentsio bakarreko ekintzak zein eskala txikiko ekintzak, beharrezkoak izan arren, ez dira, antza denez, eraginkorrak eta behar adinakoak.

Krisi globala honen aurrean, 2015eko irailean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak (2015a) *Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda garapen jasangarrirako* ebazpena onetsi zuen, zeinak *Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda* eta hari dagozkion *Garapen Jasangarrirako Helburuak* (GJH) definitu dituen. Garapenerako agenda berri hau krisi globalari aurre egiteko aukera eman dezakeen ekimen unibertsala da, izaera kolektibo eta integralekoa (Sanahuja eta Tezanos, 2017). Hala, 2016ko urtarrilean inplementatu zirenetik, herrialde guztiek (hala garatuak deritzenek nola garatze bidean daudenek) 2030 Agenda eta GJHen ekintza plana martxan jartzeko konpromisoa hartu dute, haren lehentasunak eta politika partikularrak aintzat hartuz. 2030 Agendak, zeinak Milurtekoko Adierazpenaren eta Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) lekukoa hartu zuen, 15 urte iraungo du, eta 2030. urtea izango du egikaritzeko eta inplementatzeko horizontetzat.

Dokumentu honetan 2030 Agenda eta GJHen eraikuntza, inplementazio eta ebaluazio prozesuko elementu nagusiei buruzko ohar batzuk egiteko asmoa dugu; ikuspegi kritiko batetik haren puntu positiboak nabarmentzen ahaleginduko gara, eta baita izan ditzakeen mugak zeintzuk diren adierazten ere. Horretarako, sarrera honen ondoren, bigarren atalean, 2030 Agendaren aurrekari batzuk aurkeztuko dira, haren sorrera eta testuingurua ulertzeko egokiak direnak. Ondoren, hirugarren atalean, 2030 Agendaren eta GJHen eraikuntza prozesua eta edukia landuko ditugu. Laugarren atalean, inplementazio, jarraipen eta ebaluazio prozesuari buruzko kontu batzuk azalduko ditugu. Amaitzeko, azken atalean, gogoeta batzuk egingo dira ondorio moduan.

2. 2030 Agendaren eta GJHen aurrekariak

Nazio Batuen Erakundeak, 2015eko irailean, 2030 Agendaren eta GJHei buruzko ebazpena onetsi arteko bidea konplexua izan da, eta bide horretan amaiera gisa agenda berri honen onespina izan duten hainbat gertakari eta eztabaida izan dira. Gertakari eta eztabaida horien guztien arrastoari jarraitzea dokumentu honen asmoetatik harago dago. Gure ustez 2030 Agenda eta GJHak eraikitzeke oinarritzeko inputak eman dituzten hiru mugarrirata bideratuko dugu arreta.

Lehen gertakaria *giza garapenaren* ikuspegiaren sorrera da; garapenari buruzko eztabaida teoriko eta kontzeptual hauek 80ko hamarkadako azken urteetan eta 90eko hamarkadako lehenengoetan eman ziren gehienbat. Nolabait, giza garapenak berbideratu egin zituen garapenaren diskurtsoa eta praktika, pertsonak garapen prozesuen azken helburutzat jota. Bigarren mugarrira, aurrekoaren eragin handia jasotakoa, 2000. urtean Nazio Batuen Erakundeak *Milurtekoko Adierazpena* onetsi izana eta haren ondoren *Milurtekoko Garapen Helburuak* (MGH) formulatu izana da, pobreziaren aurkako borrokarako ikuspegiarekin. Azkenik, hirugarren gertakaria *Garapen Jasangarrirako buruzko Nazio Batuen Konferentzia* (Rio+20) egin izana da, 2012an, zeinak arreta bideratu zuen hala jasangarritasunera eta ingurumenara nola horiek afera sozialekin eta ekonomikoekin dituzten loturretara.

2.1. Giza Garapena: pertsonak garapen prozesuen erdigunean

Iragan mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan, garapenaren teoria eta estrategiak sortu (40ko hamarkadaren erdialdean) eta urte batzuetara, proiektu horren porrota agerian geratu zen. Gainera, egoera hori okertu egin zen gorabehera batzuegatik, hala nola globalizazioaren sakontzea, krisi energetikoa, garapen bidean zeudela esaten zen herrialdeetako batzuen kanpo zorraren handitzea eta Sobietar Batasunaren erorketa, beste batzuen artean. Testuinguru horretan, herrialde garatu eta garapen bidean zeuden herrialdeen arteko arrakala handitu egin zen. Herrialde eta pertsona guztientzako hazkunde ekonomikoaren bidezko garapen eta oparotasun promesen aurrean (ikuspegi produktibista), ageriko errealitatea zen gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko arazo handiak zeudela oraindik ere, eta horiek munduko pertsona probretuenei egiten zieten kalte batik bat. Garapen desiratuaren ordeztu, *okerreko garapen* egoera bat iritsi zen, agerian uzten zuena, batetik, garapen proiektuaren porrota eta, bestetik, bizimodu okerraren egiaztapena munduko leku askotan (Unceta, 2015).

Testuinguru horrek ikuspegi neoliberalaren sorrera sustatu zuen, Washingtongo Adostasunean zehaztua, eta, pixkanaka, pentsamendu ekonomikoaren korrante nagusi moduan posizionatu zen, harik eta mundu mailako politika publikoetan eragina izan zuen arte nazioarteko erakunde finantzarioen bidez (Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtza - NDF). Ikuspegi neoliberalak joera ekonomizistagoa aldarrikatu zuen arestian aipatutako arazoaren konponbiderako, rol protagonista gizabanakoari, merkatuari, hazkunde ekonomikoari eta nazioarteko merkataritzari emanda, zeregin horretarako bitarteko eraginkorrenak zirelakoan. Korrante horretatik begiratuz gero, estatua eta haren garapen politikak oztopo bat ziren, eta horregatik haien tamaina eta ekintza esparrua murriztu egin behar ziren.

Testuinguru horretan, iragan mendeko 80ko hamarkadako azken urteetan eta 90eko hamarkadako lehenengoetan, *oso modu orokorrean* hiru korrontetzat jo daitezkeen hiru ikuspegiaren arteko eztabaidak piztu ziren. Lehenik, *garapenaren diskurtsoa berreskuratzen* saiatu ziren ikuspegiak dauzkagu, teoria ekonomiko ofizialaren marko teoriko eta metodologikoak egokituz ordura arte aintzat hartu gabeko arazoei aurre egiteko; hemen kokatu behar da Munduko Bankuaren biraketa eta hark gizartearekin eta ingurumenarekin lotutako hainbat gairen inguruan egindako lana, hazkunde ekonomikoari lehentasuna kendu gabe. Beste aldean, Post-garapenaren aterkipean, *garapenaren kontzeptua eta diskurtsoa ukatzen zuten* ikuspegiak zeuden, hura baztertzea proposatuz, matrize moderno, mendebaldar eta kolonial batek eragindako proiektua zelako. Ikuspegi hau zutenek, garapen kontzeptuak mundua ezagutzeko, ulertzeko eta munduan egoteko beste modu batzuk loratu baino gehiago, horiek ikusezin bihurtu edo zuzenean suntsitu zituela uste zuten. Erdiko gune batean kokatu ziren beren bitartekoen eta helburuen arteko harremana birpentsatuz *garapenaren berbideratze eta berformulazio sakona* egitearen alde zeudenak (Unceta, 2015).

Hain zuzen ere, garapenaren diskurtsoa eta praktika berbideratzea bilatzen zuen ikuspegietako bat izan zen hasieran giza garapena. Pertsonak garapen prozesuen azken helburu moduan aldarrikatzen zituzten, eta esan daiteke, Giza Garapena garapenaren kontzeptio ofizialenari aurre egiten zion proposamen nagusietako bat bihurtu zela. Giza garapena, Amartya Sen-en Gaitasunen Ikuspegiaren proposamenaren (1990) oinarritua, Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) barrutik bultzatu zen.

Giza Garapenak dakarren elementu nagusietako bat da pertsonen garapenaren azken helburu moduan emandako lehentasuna, estatuaren zein merkatuaren gainetik. Ikuspegi horretatik begiratuta, garapena pertsonaren *gaitasunen handitzea* dela esanez definitzen da, hau da, pertsonen beren bizitzarako garrantzitsu irizten diotena *izateko edo edukitzeko* eskura dituzten aukeren handitzea (GNBP, 1990). Beraz, pertsonen bizi-kalitatea edo ongizatea ezin dira jada ulertu eta ebaluatu dimentsio bakar baten bidez (BPGd-ren hazkunde) eta herrialdeen jardura ekonomikoari lotuta. Pertsonen izate eta edukitze desberdinen artean aukeratzeko daukaten ahalmena dimentsio anitzekoa da. Askatasunaren dimentsioak protagonismoa hartzen du, pertsonen bizi-aukera desberdinak sustatzeko aukera izan behar baitute, aukera desberdinen artean aukeratzeko askatasuna izateaz gain.

Garapenaren kontzeptio horrek zabalkunde handia izan du GNBPk urtero argitaratzen dituen [Giza Garapenaren Txostenen](#) bidez, eta eragina izango du pobreziaren kontzeptioan, dimentsio anitzeko ikuspegi batetik ere ulertuko baita, hau da, gabeziak ongizatearen dimentsio desberdinetan kontuan hartuta, eta ez

ikuspegi ekonomiko batetik diru-sarrera aski ez izatearen ikuspegitik soilik (Alkire, 2010). Kontu horiek eragin handia izango dute MGHen formulazioan eta gero GJHetan.

2.2. Milurteko Adierazpena eta Milurteko Garapen Helburuak (MGH)

Garapenari eta pobrezia- eta hainbat gabeziaren prebalentziari buruzko eztabaidek izandako biraketa sozialaren ondoren, 2000. urtean Nazio Batuen Batzar Nagusiak Milurteko Adierazpena onartu zuen (Nazio Batuen Erakundea, 2000). Adierazpena munduak une hartan zeuzkan arazo eta erronka nagusiei buruzko diagnostiko zabal partekatua izan zen, bereziki sektore pobrenei buruzkoa (Unceta, 2016). Adierazpenaren zehaztapena urtebete geroago iritsi zen (2001) *Milurteko Garapen Helburuak* (MGH) definitu zirenean. MGHen Agenda, zeinarentzat 15 urteko epea ezarri zen (2015era arte), pobrezia-aren aurkako borrokaren mundu mailako ahaleginak bideratzeko lehen saio globala izan zen beharbada, horixe baitzen gizateriaren arazo nagusietako bat milurteko berriaren hasieran (Alonso, 2016).

MGHen Agenda formulatzeko eta lantzeko prozesua 90eko hamarkadan hasi zen; testuinguru horretan, gainera, garapenerako lankidetzaren politikak, hainbat atzerakada izan zituzten, ikuspegi neoliberal nazioartean bultzatzen ari zen estatuaren ekintzen murrizketaren ondorioz. Joera horien kontrakarrean, paraleloki, mobilizazio eta ekintza politikoko prozesu batzuk izan ziren arazo horiei aurre egiteko. Urte haietan, hainbat goi-bilera eta bilkura egin ziren, estatuaren, nazioarteko erakundearen, Nazio Batuen agentzia eta antolakundearen, GKE-en eta gizarte mugimenduen aliantza batzuen parte-hartzearekin. Goi-bilera horien bidez, jomuga kuantitatiboaren proposamen bat egin zuten 1996an nazioarteko laguntza ematen zuten herrialdeek, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) Garapenaren Laguntzarako Batzordearen (GLB) markoan. Proposamen horri Nazioarteko Garapen Helburuak edo Helburuak 2015 deitu zitoten (Sanahuja, 2014).

Nazioarteko Garapen Helburuen proposamenari buruz hainbat eztabaida egin ziren harik eta Nazio Batuen Erakundeak 2001ean onartu zuen arte. MGHen Agenda 8 helburuk, 21 jomugak eta 60 adierazle osatu zuten. Helburuetako batzuetan Giza Garapenaren ikuspegiaren eragina igartzen da; helburuen asmoa zen muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea, lehen hezkuntza unibertsala lortzea, generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia bultzatzea, haurren heriotza-tasa murriztea, ama-osasuna hobetzea, GIB/HIESAren, paludismoaren eta beste gaitz batzuen aurka egitea, ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea eta garapenerako mundu mailako elkarte bat sustatzea (1. taula). 1.etik 7.era arteko helburuak izan ziren garapen bidean zeudela esaten zen herrialdeek egikaritu beharrekoak, eta 8. helburuak herrialde garatuek hartutako konpromisoetako batzuk ditu, agendaren finantzazioari lotutako gaiekin zerikusia zutenak.

MGHen Agendaren iraunaldia 2015ean amaitu zen. Helburuen egikaritzearen balantzeak, Nazio Batuen Erakundearen txostenaren (2015b) arabera, lorpen garrantzitsuak erakusten ditu. Munduan muturreko pobrezian zeuden pertsonen portzentajea (eguneko 1,25 dolar baino gutxiagorekin bizi zirenean) erdiraino baino gehiago murrizteko helburua egikaritu egin zen; gisa berean lortu zen, halaber, ur edangarria eta saneamendua eskura ez zuten pertsonen ehunekoa erdiraino baino gehiago murriztea; eta lehen hezkuntzan matrikulatutako nesken kopurua mutilen kopuruaren parekoa izatea lortu zen mundu mailan. Dena den, helburu batzuen adierazleek hobera egin arren, ez ziren aurretik ezarritako helburu zehatzak egikaritu, eta modu larrian geratu ziren bete gabe "lan prekaritatearekin, amen heriotza-tasarekin, etxebizitza kaxkarrekin eta karbono dioxido isuriek, garatzeko bidean zegoen munduko eskualdeen aurrerabide desperekoekin" zerikusia zuten gaietan (Sanahuja eta Tezanos, 2017: 534). Arazo horietako batzuk kezkarriak ziren eskualde batzuetan, Saharaz hegoaldeko Afrikan adibidez.

1. Taula. Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH)	
1. helburua	Muturreko pobrezia eta gosea desagerrarazi
2. helburua	Lehen hezkuntza unibertsala lortu
3. helburua	Generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatu
4. helburua	Haurren heriotza-tasa murriztu
5. helburua	Ama-osasuna hobetu
6. helburua	GIB/HIESAren, paludismoaren eta beste gaitz batzuen aurka egin
7. helburua	Ingurumenaren jasangarritasuna bermatu
8. helburua	Garapenerako mundu mailako elkarte bat sustatu

Iturria: Nazio Batuen Erakundea: Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) adierazleak, [<http://mdgs.un.org/unsd/mdg/Host.aspx?Content=Indicators/OfficialList.htm>]

MGHen Agendaren balantze globalago batek, garapeneko agenda global moduan izandako eragina aintzat hartuta, MGHeK Milurteko Adierazpenaren aurrean izan dezaketen pertinentziarekin lotutako kontuez gogoeta egitera garamatza, eta helburuen artean funtsezko konturik ez zegoela uste izatera. Lehen kasuan, sektore batzuek defendatu dute MGHen Agenda minimalista dela adierazpenak egiten duen gaien eta arazoen kontsiderazio adierazgarrien aurrean. Hala ere, beste sektore batzuek defendatzen dute egikaritzeko moduko helburuak dauzkan agenda zehatz bat definitzearen ahaleginak arazo batzuetan ardaztea ahalbidetu duela, hala nola muturreko pobrezia eta gosea. MGHei kritikatu izan zaien beste kontu bat da helburuetako batzuk asmo hutsean geratzen diren enuntziatuak baino ez direla, ez zirelako helburu zehatzak finkatu edo irekita utzi zirelako. 8. helburuari dagokionez, herrialde garatuen finantziario eta erantzukizun kontuei buruzkoa, arazo handiak egon ziren ezarritako helburuak egikaritzeko eta horrenbestez garapenerako benetako aliantza bat lortzeko (Economistas sin Fronteras, 2014; Unceta, 2016).

Bigarrenik, MGHen Agenda garapen bidean zeudela esaten zen herrialdeei baino ez zitzaien aplikatzen; honekin nabarmen geratu zen ez zutela aintzat hartu desparekotasunaren arazoa nazioarte mailakoa zela, bai herrialdeen artean eta baita herrialde bakoitzaren barruan ere.; gainera, jasangarritasunaren kontu batzuk 7. helburuan sartuta baldin bazeuden ere, proposatutako jomugek ez zieten erantzuten Adierazpenari eta ingurumenari lotutako arazoen konplexutasunari. Egiturazko kontuak dira horiek dudarik gabe, eta konpondu ahal izateko, aurre egin diezaioketen helburu argi eta zehatzak izatea garrantzitsua da (Unceta, 2016).

Nolanahi ere, Milurteko Adierazpena eta MGHen Agenda 2030 Agenda berriaren eta GJHen giltzarri bihurtu ziren. MGHen arrakastak eta porrotak aurrekari praktiko gisa baliagarri izan ziren 2030 Agenda berria eraikitzeke eta inplementatzeko, aurrerago ikusiko dugun moduan.

2.3. Garapen Jasangarriari buruzko Rio+20 Konferentzia

2012ko ekainean egin zen, Rio de Janeiron, Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (Rio+20), eta bertan, ingurumenarekin eta hark gizarteetan duen eraginarekin lotutako arazoei buruzko askotariko kezken inguruan hausnartu zen. Konferentzia horren aurretik, hainbat mugarririk, goi bilerak eta beste konferentzia batzuek gai horiek jorratu zituzten, eta horien artean honako hauek nabarmendu ditzakegu: Erromako Klubaren txosten ospetsuaren argitalpena 1972an, *Hazkundearen mugak* izenburua zuena, zeinak lehen ohartarazpena egin zuen nazioarteko mailan ingurumenarekin eta baliabide naturalekin lotutako arazoei buruz; urte berean, Giza Inguruari buruzko Mundu Konferentzia egin zen Stockholmen, zeinean Nazio Batuen sistemaren barruan hainbat funts eta programa sortzea aholkatu zen, Nazio Batuen Ingurumen Programa (NBIP) adibidez; 1983an, Ingurumen eta Garapeneko Mundu Batzordea sortu zen (IGMB/WCED), eta 1987an batzorde horrek *Gure etorkizun komuna* txostena argitaratu zen, *Brundtland Txostena* izenarekin ere ezaguna (WCED, 1987), zeinak garapen

jasangarriaren definizio ezaguna egiten zuen: "gaur egungo belaunaldiaren premiak asetzen dituen etorkizuneko belaunaldiek berenak asetzeko izango duten ahalmena arriskuan jarri gabe". 1992an, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia edo Lurraren Goi Bileran egin zen Rio de Janeiron, Rio+20ren aurrekaria; eta 2002an Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi Bileran egin zen Johannesburgon. Aurrekari horiez gain, klima aldaketa edota bioaniztasuna bezalako gaiak ere landu ziren bestelako nazioarteko bilkura batzuetan.

Rio+20 Konferentziak aurreko bilkuretako hitzarmenak, ikasketak eta gaiak jaso zituen eta horiek Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Nahi dugun etorkizuna izenburuko ebazpenean bildu ziren (Nazio Batuen Erakundea, 2012). Eztabaida eta negoziazio gogorrean lotuak izan ohi dira halako konferentziak, eta kasu honetan, ebazpen honen adierazpen-zatiak agerian uzten ditu tentsio horiek. Hala ere, garapen jasangarriaren markoa aitortu eta egokitzat jotzen du gizarteari, ekonomiari eta ekologiari dagozkien arazoei batera aurre egiteko, eta honetarako bide-orri bat proposatu zuen gaia hurrengo urteetan landu ahal izateko. Hain zuzen ere, lortutako akordioaren artean nabarmentzekoak dira kontu hauek: *Garapen Jasangarrirako Helburuak* lantzeko printzipio eta prozedura batzuk ezartzeko proposamena, MGHa ordezkatzeko 2015ean; goi mailako foro politikoa sortzea (HLPF: *High-level Political Forum*) garapen jasangarriaren gobernantza sustatzeko eta gai hauetan hartutako nazioarteko konpromisoak egikaritzen direla egiaztatzeko; eta, azkenik, gaitasunen garapen mekanismo bat sortzea NBEren barruan garapen jasangarrirako helburuak lortzeko.

Konferentzia horrek 2030 Agenda eta GJHa eraikitzeke oinarriak ezarri zituen, markotzat garapen jasangarria hartuta arazo ekologiko, ekonomiko eta sozialei aurre egiteko.

3. 2030 Agenda eta GJHa

Gure ikuspegitik begiratuta 2030 Agendari eta GJHei oinarri kontzeptuala eta esperientzia praktikoa ematen dioten hiru mugarriak eta horien aurrekariak aipatu ondoren, atal honetan agendan eta helburuetan sartuko gara. Lehenik, agendaren eraikuntzan, bereziki Rio+20 Konferentziaren ondoren, jarraitutako prozesuari buruzko zertzelada laburrak emango ditugu. Ondoren, 2030 Agenda definitzen duten Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren ebazpenaren eduki nagusiei erreparatuko diegu. Azkenik, GJHen, jomugen eta adierazleen aurkezpen laburra egingo dugu.

3.1. 2030 Agenda eta GJHa eraikitzeke prozesua

2030 Agenda eraikitzeke prozesua, orduan *Agenda Post-2015* zeritzona, 2010ean jarri zen abian Nazio Batuen Erakundearen ekimenez eta 2012tik aurrera indartu zen, Rio+20 Konferentziaren eta konferentzia hartako *Nahi dugun etorkizuna* ebazpenaren ondoren. Gogoratu dezagun dokumentu horrek MGHe irekitako prozesuari jarraipena emango zion Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) proposamena egitea eskatzen zuela. 2030 Agendaren kontsulta, eztabaida eta negoziazio prozesuak hiru urte baino pixka bat gehiago iraun zuen, eta epe horretan hainbat eragilek eta sektorek egindako proposamenak eztabaidatu ziren. Proposamen horietan bi ikuspegi nagusitzen ziren. Minimalistago eta kontinuitatago zenak MGHen agenda luzatzea proposatzen zuen, lehentasuna emanez gosea, muturreko pobrezia eta oinarritzko premiak asetzeko ezintasunak desagerrarazteari, eskualderik pobretuenetan zentratuta (Saharaz hegoaldeko Afrika eta Asiaren hegoaldea eta hego-ekialdea). Beste ikuspegiak plan zabalagoa, anbiziotsuagoa eta unibertsalagoa proposatzen zuen, Giza Garapenaren eta Garapen Jasangarriaren agendak "garapen jasangarrirako aliantza global batean" integratuz (Sanahuja eta Tezanos, 2017).

2030 Agenda egiteko jarraitutako prozesuak aurreko atalean aipatu ditugun gaiak eta eztabaidak bereganatu zituen, batez ere Rio+20 Konferentziako garapen jasangarriari buruzko akordioak eta MGHen eraikuntzatik eta inplementaziotik eratorritako emaitzak, prozesu horretan egindako akatsak saihesten saiatuz (Sotillo, 2015). MGHen Agenda eraikitzeke jarraitutako prozesuan ez bezala, 2030 Agendaren eraikuntza irekiagoa eta parte-hartzaileagoa izan da, kanal eta foro bat baino gehiagoren bitartez inplikaturako eragile askotarikoei lekua emanez: gobernuak, nazioarteko antolakundeei, gizarte zibilaren

antolakundeei, enpresarien sektoreari, adituei eta baita oro har herritarrei ere. Dena den, eragile horiek eztabaidetan eta negoziazioetan parte hartu izanak ez du esan nahi pisu bera izan zutenik; alderantziz, tentsioak agerikoak izan ziren eragile eta sektore batzuen eta besteen artean, botere banaketaren aldetik, zeuden desoreken ondorioz (Martínez-Oses eta Martínez, 2015; Martínez-Oses, 2017).

Hala, adibidez, gobernuen arteko planoan, herrialde garatuak zeritzenek, eta bereziki susperraldian zeudenek (Txina, India, Brasil, Kolonbia, besteak beste) paper garrantzitsua jokatu zuten agendaren eraikuntza prozesuan, eta lortu zuten GJHen ikuspegi zabalaren proposamena izatea eztabaidatzen hasi zena, eta lortu zuten, halaber, agenda berriaren aplikazioak herrialde garatuei ere eragitea. Hori, beharbada, azken urteetan munduan izandako botere balantzeen aldaketaren ondorio izan da, susperraldian zeuden herrialdeen gorakadarekin; horrek, aldi berean, agerian utzi du politikaren arloan eta nazioarteko mailan erabakiak hartzearen arloan balioa duen agertoki berria jada ez dela G-7a, G-20a baizik, eta are G-77a ere izan daiteke garrantzitsua kontu askotan¹ (Alonso, 2016).

Nolanahi ere, 2012 eta 2013an, Post-2015 Agenda baterako proposamenak egin ziren hainbat arlotatik, eta Nazio Batuen Erakundearen Idazkari Nagusiaren enkarguz hainbat txosten aurkeztu ziren Post 2015 Garapen Agendarako Lan Irekiko Taldetik, 2015aren ondoreneko Garapenerako Agendari buruzko Goi-mailako Taldetik, Garapen Jasangarrirako Irtenbideen Saretik, Munduko Hitzarmenetik eta Nazio Batuen Eskualde Batzordeetatik. Input horiekin, Nazio Batuen Batzar Nagusiak bere txosten propioa prestatu zuen, batzar nagusiak babestua, *Bizitza duina denontzat* izenburua zuena, zeinak jasangarritasunaren 4 dimentsioetan oinarritutako 2030 Agenda bat planteatzen zuen (Sanahuja eta Tezanos, 2017).

Eztabaidek eta negoziazioek jarraitu egin zuten eta 2014. urtearen amaieran Idazkari Nagusiak sintesiko bigarren txosten bat aurkeztu zuen, izenburutzat *Duintasunerantz bidea 2030erako* zuena, eskubideetan oinarritutako garapen jasangarriko agenda unibertsal bat proposatuz, erdigunean pertsonak eta Planeta jarrita, eta izaera integralkoa, hau da, aintzat hartzen dituen bitartekoen eta inplementazioko, jarraipeneko eta ebaluazioko sistemen aferak. Prozesu paralelo batean, Garapen Jasangarriari buruzko Lan Irekiko taldeak –Rio+20 Konferentziako ebazpenaren aginduz sortua 2013an eta 70 estatutako gobernu-ordezkariek osatua– hainbat bilkura eta kontsulta egin zituen 2014an gobernu kanpoko eragileekin, eta horien bidez 17 helburu eta 169 jomuga zeuzkan lehen zirriborro bat definitzea lortu zuen. G-77aren eta beste estatu batzuen babesarekin, helburuen proposamen luze hori bere gain hartu zuen Batzar Nagusiak negoziatorako, herrialde aurreratu batzuek defendatutako helburu sinplifikatuagoko proposamenen aurre (Sanahuja eta Tezanos, 2017).

Agendaren eraikuntza prozesua 2015eko irailean amaitu zen, 150 estatuburu eta gobernubururen eta Nazio Batuen Erakundearen 193 kideren babesez, *Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda garapen jasangarrirako* eta haren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak –GJH– eta 169 jomugak onartu zirenean (Nazio Batuen Erakundea, 2015). 2030 Agenda eta GJHak, Milurteko Agendaren eta MGHen lekukoa hartuta, 2016ko urtarrilean sartu ziren indarrean eta 15 urteko epea eman zen haiek inplementatu eta egikartzeko; hau da, espero da 2030erako GJHak eta jomugak lortuak izatea.

3.2. 2030 Agendaren definizioa eta edukia

Nazio Batuen Erakundearen arestian aipatu ebazpenean (2015a), *Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda garapen jasangarrirako*, agenda berri horren edukia zehazten da. Ebazpenaren dokumentua hainbat ataletan banatuta dago, eta horien bidez 2030 Agenda eta GJHak osatuko dituzten elementuak

1 G-7 munduko zazpi ekonomia garatuenak eta industrializatuenak biltzen dituen foro politikoa da, Alemaniak, Kanadak, Amerikako Estatu Batuek, Frantziak, Italiak, Japoniak eta Erresuma Batuak osatua. G-20 foro zabalagoa da, herrialde industrializatuek eta susperraldian daudenean osatua, barruan direlarik, G-7koekin batera, Saudi Arabia, Argentina, Australia, Brasil, Txina, Hego Korea, India, Indonesia, Mexiko, Errusia, Hegoafrika, Turkia eta, horiez gain, Europako Batasuna (zeinak baduen ordezkapena G-7an ere). G-77, berriz, garapen bidean daudela dioten herrialdeek osatutako taldea da, Nazio Batuen Erakundearen barruan, herrialde horien interesen defentsan ekintza eta erantzun bateratuak koordinatzeko sortua antolakunde horren barruan eztabaidatzen diren gai nagusiei dagokienez.

aletzen dira. Sarrerarekin hasten da, agendaren printzipio nagusiak definituz; ondoren adierazpena bera aurkitzen dugu, hitzurrearekin, etorkizunaren ikuspegiarekin, printzipio eta konpromiso komunekin, gaur egungo munduaren testuinguruarekin, agenda berriaren definizioarekin, inplementazio bitartekoekin, jarraipenarekin eta azterketarekin, eta mundua eraldatzeko ekintzarako deiarekin; horri jarraituz, GJHen eta horiei dagozkien jomugen definizioa aurkitzen dugu; eta, azkenik, gaiak zabaltzen dituzten bi atal: bata, inplementazio bitartekoei eta agenda egikaritzeko mundu mailako aliantzari buruzkoa, bestea, haren jarraipen eta azterketa prozesuei buruzkoa.

Ebazpenaren arabera, 2030 Agenda "pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plana" dela esanez definitzen da, zeinak horrez gain helburuen artean duen "bake unibertsala indartzea askatasunaren kontzeptu zabalago baten barruan" (Nazio Batuen Erakundea, 2015a: 1). Plan hau, 17 GJH eta 169 jomuga egikaritzean oinarritua, MGHa ez bezala, herrialde guztiek inplementatu beharko dute, *pobretuenek nahiz aberatsenek* (iparra-hegoa harremanen dinamika hautsiz horrela) eta gizartearen sektore guztien bitartez nazioarteko lankidetzako aliantza handi batetik abiatuta. Proposatutako GJHa eta horien jomugak (hurrengo azpiatalean ikusiko ditugunak) integralak, zatiezinak eta unibertsalak dira, eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak hartzen dituzte gainera -ekonomikoa, soziala eta ingurumenari dagokiona-. Hala, 2030 Agenda eta GJHa abian jartzea gizateriarentzat eta planetarentzat kritikoak diren bost esparrutan oinarritzen da:

- **Pertsonak:** ahaleginen xedea da *pobrezia* eta gosea *desagerraraztea*, haien agerpen guztietan, inor atzean geratu gabe.
- **Planeta:** planetari eragiten dion endekapena geldiaraztea bilatzen da *mundua jasangarritasunaren bidetik berbideratzeko*.
- **Oparotasuna:** gizaki guztiek *bizitza oparo eta betea* izan dezaten nahi da, naturarekin harmonikoa den aitzinamendu ekonomiko, sozial eta tekniko baten bidez. Horrez gain, giza eskubideak, generoen arteko parekotasuna eta emakumearen ahalduntzea balioestea bilatzen da.
- **Bakea:** *gizarte baketsu, justu eta inklusiboak, indarkeriatik askeak* bultzatzea bilatzen da, agertoki hori litzateke agendaren lorpenak gauzatzeko eta etorkizunean horiei eusteko egokiena.
- **Aliantzak:** Bakea: *indarkeriatik aske dauden gizarte baketsu, justu eta inklusiboak* lortzea da helburu. Testuinguru hori litzateke agendaren lorpenak gauzatzeko eta etorkizunean horiei eusteko egokiena.

Beraz, 2030 Agenda ikuspegi baikorragoetatik begiratuta, *kontratu sozial globala* da, bost *P* dituen ardatz batean oinarritua -*people, planet, peace, prosperity and partnership*, ingelesez, hots, jendea, planeta, bakea, oparotasuna eta aliantzak-, zeinaren asmo nagusia den gizarteak justuagoak izatea, garapen jasangarri inklusiboa eskuratzea eta pertsonak prozesu guztien erdigunean egotea (Gallach, 2019). Beste ikuspuntu batzuetatik begiratuta, agenda asmo onen zerrenda bat bihur daiteke, estrategiarik gabea eta inplementazio bitartekoen planteamendu egokirik gabea (Unceta eta Gutiérrez-Goiria, 2018). Alde horretatik, agenda honen potentzialitateak eta haren finantzazio aukerek Addis Abebako goi bilerari erreferentzia egiten diote, zeinak honako hau nabarmentzen duen: "herrialde aberatsen laguntzaz gain, GJHen finantzazioak baliabide iturri guztien mobilizazioa eta aldeko eragina eskatzen du, herrialdekoak zein nazioartekoak, publikoak zein pribatuak, tradizionalak zein berritzaileak, baita legez kanpoko fluxuei eta zerga-ihesaren arazoari aurre egitea ere" (Sanahuja eta Tezanos, 2017: 539). Hala ere, errealitatea da Addis Abebako konferentzia porrot moduan ikusi izan dela².

Bestalde, 2030 Agenda eta GJHa amaitu, itxi eta adostasun globaleko moduan aurkeztu ohi badira ere, haren interpretazioari eta bereganatzeari buruzko eragileen arteko tirabiretarako gune da, hala inplementazio prozesuetan nola ebaluazio eta jarraipenekoetan, baita aplikazio mailetan ere. Aurre egin nahi dien arazoek konplexutasunaren eta 2030 Agendaren beraren eraikuntza eta negoziazio prozesuaren beraren ondorio da hori; prozesu horretan botere oso desberdina duten eragileen interesak elkartu dira, hala nola gizarte zibilarenak eta enpresa transnazionalenak (Martínez-Oses, 2017).

2 Addis Abebako Agendak 2030 Agendan izan zuen porrotaren ondorioetan sakontzeko, ikus Martínez-Oses (2017).

Alde horretatik, adibidez, 8. GJHak –aurrerago izendatuko dugu– hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa eta guztientzako lan egokia bilatzera bideratua dagoenak, enpresen sektorearen eta estatuen interesei erantzuten die. Helburu hau gatazkan jar daiteke 14. edo 15. GJHarekin, bi horiek uretako eta lurreko ekosistemen kontserbaziora eta babesera bideratuak baitira hurrenez hurren, eta hainbat eragileren kezka ekologistetatik gertuago daude. Interpretazio menderatzaile batzuk nagusitzen dira gehienetan, eta horiek hazkunde ekonomikoari loturikoak izan ohi dira normalean. Antzeko analisisia egin daiteke GJHetako bakoitzari buruz. Horrela, “2030 Agenda berak proposatzen dituen eraldaketetarako orientabide moduan baliagarri izan dadin, politikoki interpretatu behar da, hau da, inplementazio epean zer aldaketa gertatu behar diren aztertzea garrantzitsua da. Nolabait, gaur egungo botere harremanetan mundu jasangarriago, parekideago, justuago eta baketsuago bateranzko trantsizioak, harremanen erretorika huts bat baino gehiago izan beharko luke (Martínez-Oses, 2016: 3).

3.3. GJHak, jomugak eta adierazleak

GJHak

GJHak 2030 Agendaren zehaztapena dira, eta, gaur egun, krisi globalari modu koordinatuan aurre egiten saiatzeko ekintza planaren zutabeak. 17 GJH definitu dira, horietako batzuk MGHei jarraipena ematen dietenak. 17 GJH horiek integratuak eta zatietan dira, eta garapen jasangarriaren markoko hiru dimentsioak hartzen dituzte: ekonomikoa, soziala eta ingurumenaren arlokoa. 2. taulan 17 GJHak jasotzen dira.

1. taulan jasotako MGHei begiratzen baldin badiegu (2.2. azpiatala) eta GJHekin alderatzen baldin baditugu, egiar dezakegu MGH gehienak GJHetan sartuta daudela edo zabaldu egin direla. Alde horretatik, GJHen Agenda MGHei abiarazitako garapen globalaren agendarako bidearen jarraipena da. Baina agenda berri hori MGHei baino zabalagoa da eta MGHei baino helburu anbiziotsuagoak ditu, eta horrek, aldi berean, ez egikaritzeko arriskua ekar dezake, helburuak lortzeko ahalegin eta bitarteko guztiak jarri ezean. Gosearekin eta muturreko pobreziarekin lotutako gaiez gain, GJHei beste gai batzuk ere hartzen dituzte aintzat, hala nola argindarraren eskuragarritasuna, errenten desparekotasuna, hazkunde ekonomikoa eta lan duina, urbanismo eta industrializazio jasangarria, ekoizpen eta kontsumo jasangarriak, klima aldaketaren aurkako borroka, gizarte baketsu eta justuak bultzatzea eta lurreko zein uretako sistemen zaintza eta kontserbazioa, beste batzuen artean.

Ikuspegi horretatik begirata, GJHei logika unibertsal eta multidimentsionala dute, eta giza garapenaren eta garapen jasangarriaren arloekin lotutako kontuak aintzat hartzen saiatzen dira. Horrela, GJHei MGHei alderatuta dituzten berrikuntzen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Jasangarritasunaren gaiak sartzea: ingurumenaren arloko arazoei eta horiek pertsonen ongizatean eta gaitasunetan dituzten eraginei aurre egiteko, helburuetako batzuek ingurumen arloko hainbat arazo dituzte ardatz, 13., 14. eta 15. helburuek adibidez.
- Parekotasunari buruzko kezka: gai hau ikusezin bihurtua geratu zen MGHetan, eta orain helburu espezifiko batean islatzen da, 10. helburuan, eta modu transbertsalagoan, baina ez hain modu esplizituan, beste helburu batzuetan (hala nola 4., 5. eta 16.ean).
- Agendaren unibertsaltasuna: MGHei ez bezala, zeinaren inplementazioa *herrialde garatu* deritzenei baino ez zegokien, 2030 Agendaren eta GJHen lanketak eta inplementazioak era guztietako herrialdeetako eragile eta sektore askotarikoen inplikazioa izan dute.

2. Taula. Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH)

1. helburua	Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan
2. helburua	Gosea amaitzea, elikagai-segurtasun eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea
3. helburua	Guztiantzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea
4. helburua	Guztiantzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea
5. helburua	Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahaldundutzea
6. helburua	Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiantzako saneamendua bermatzea
7. helburua	Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiantzat
8. helburua	Guztiantzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea
9. helburua	Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea
10. helburua	Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea
11. helburua	Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea
12. helburua	Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea
13. helburua	Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (*)
14. helburua	Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea garapen jasangarriari begira
15. helburua	Lehorreko bizitza babestea, lehengoratztea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea
16. helburua	Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan
17. helburua	Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea

Iturria: Nazio Batuen Erakundea (2015a).

Oharra: (*) Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaketari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foro nagusia dela.

Jomugak eta adierazleak

Nazio Batuen 2030 Agendari buruzko ebazpenean 169 jomuga definitzen dira 17 GJHentzat. Jomugak GJH bakoitzarentzako helburu zehatzagoak dira eta horien xedea da GJHen inplementazioa eta ebaluazioa eraginkorrago egitea. 169 jomugetatik 43 ez dira *finalista*; inplementazio bitartekoei dagozkie, eta ez dute azken emaitzarik bilatzen, ekintza politikoa bideratzea baizik; jomuga horiek, gainera, ondoren letra bat daukaten zenbakien bidez adierazten dira (Martínez-Oses, 2017). Jomuga gehienak, berriz, *jomuga finalistak* dira, zenbakiekin baino adierazten ez diren azken emaitzak bilatzen dituztenak.

17 GJHen eta 169 jomugen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, adierazle zerrenda bat behar zen. Adierazleen marko globalaren definizioak eta garapenak ere kontsulta eta eztabaida prozesu bat behar izan zuen, GJHei buruzko Agentziarteko eta Adituen Taldeak egina. Talde horrek proposatutako adierazleen markoa Estatistika Batzordeak adostu zuen lehenik, eta gero Nazio Batuen Batzar Nagusiak hartu zuen beretzat 2017an. 2019ko martxotik aurrera 232 adierazleren zerrenda bat dago (hainbat GJHtan errepikatzen diren 12 adierazleak kenduta), zeinak barruan hartzen dituen Estatistika Batzordeak 2018 eta 2019ko bere bileran egindako hobekuntzak.

Adibide moduan, har dezagun 1. GJHa, *pobrezia mota guztiak mundu osoan desagertzeari* buruzkoa. Haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, GJH honek 5 jomuga finalista dauzka lotuta (1.1etik 1.5era), eta bi ez-finalista (1.a eta 1.b). Aldi berean, GJH horren 7 jomugek 14 adierazle dituzte lotuta. Espazio hau mugatua denez, 3. taulan ikus dezakegu, modu argigarrian, nola formulatu diren 1. GJHaren 7 jomugetako 4 (bi finalista eta ez-finalista diren biak), baita horietako bakoitzari zer motatako adierazleak lotzen zaizkion ere.

3. Taula. 1. GJHaren jomuga eta adierazle batzuk		
1.1 jomuga	Gaurtik 2030era bitarte, desagerrarazi pertsona guztientzat eta mundu osoan, muturreko pobrezia (gaur egun muturreko pobrezian bizi direla kontsideratzen da eguneko Amerikako Estatu Batuetako 1,25 dolar baino gutxiagorekin bizi direnak)	1.1.1 adierazlea Pobreziaaren atalasearen azpian bizi den biztanleriaren proportzioa, sexuaren, lan-egoeraren eta kokapen geografikoaren arabera banatuta (urbanoa edo landa eremukoa)
1.2 jomuga	Gaurtik 2030era bitarte, gutxienez erdira murriztu definizio nazionalen arabera pobreziaaren dimentsio guztietan bizi diren adin guztietako gizonen, emakumeen eta haurren proportzioa	1.2.1 adierazlea Pobreziaaren atalase nazionalaren azpian bizi den biztanleriaren proportzioa, sexuaren eta adinaren arabera banatuta 1.2.2 adierazlea Definizio nazionalen arabera pobreziaaren dimentsio guztietan bizi diren adin guztietako gizonen, emakumeen eta haurren proportzioa
Meta 1.a	Hainbat iturritatik eratorritako baliabideen mobilizazio esanguratsua garapenerako lankidetzaren bidez, garapen bidean dauden herrialdeei behar adina bitarteko aurreikusgarri emateko, bereziki atzeratuen daudenei, pobrezia bere dimentsio guztietan desagerrarazteko programak eta politikak inplementa ditzaten	1.a.1 adierazlea Gobernuak zuzenean pobreziaaren murrizketara bideratzen duen barne mailan sortutako baliabideen proportzioa 1.a.2 adierazlea Funtsezko zerbitzuetara bideratzen den gastu publiko osoaren proportzioa (hezkuntza, osasuna eta gizarte babesa) 1.a.3 adierazlea Zorrik sortu gabe zuzenean pobreziaaren murrizketara bideratutako programei emandako dirulaguntza eta esleipen guztien batuketara BPGd-rekiko proportzioan
1.b jomuga	Arau-marko sendoak sortu nazio eta eskualde mailan zein nazioarteko mailan, garapen estrategietan oinarrituta, pobreen alde, aintzat hartuta genero kontuak, pobrezia desagerrarazteko neurrietara bideratutako inbertsio azeleratua babesteko	1.b.1 adierazlea Neurriz kanpoko moldean emakumeen, pobreen eta talde kalteberen alde jokatzen duten sektoreei emateko erabiltzen diren aldizkako gastu publikoen eta kapital gastuen proportzioa

Iturria: Nazio Batuen Erakundea – Estatistika Saila: GJHen Adierazleen Zerrenda, [<https://unstats.un.org/sdgs/indicators/indicators-list/>].

Aipagarria da adierazleak hiru mailatan banatuta daudela, haien metodologiaren onarpenaren eta datuen erabilgarritasunaren arabera. I. mailan, jada ezarritako metodologia eta datu kopuru aski handia duten adierazleak daude. II. mailan, metodologia ezarria dutenak baina aski datu izan gabe. Azkenik, III. mailan, ezarritako edo onartutako metodologiarik ez dutenak sailkatzen dira, eta maila honetakoak dira adierazleen % 40 (Martínez-Oses, 2017). Alde horretatik, oraindik ere bada lanik egiteko adierazleen definizioan. Eta gisa berean adierazleen eraikuntzaren eta informazioaren bilketaren gaia funtsezkoa da GJHen jarraipenerako, eta horregatik estatistika sistema nazionaleri ahalegin handia eskatuko zaie datuak definitzeko eta jasotzeko, batez ere, oraindik ere, gabezia handiko sistema ahulak dituzten herrialdeetan.

4. 2030 Agendaren eta GJHen inplementazioa, jarraipena eta ebaluazioa

4.1. Inplementazioa

Hiru urte baino gehiago igaro dira 2016ko urtarrilean 2030 Agenda eta GJHak indarrean sartu zirenetik. Denbora tarte horretan, agenda bereganatu zuten herrialdeak teorikoki sartuta egon dira hark eskatzen dituen inplementazio prozesuetan. Maila globalean, 2030 Agendak mundu mailako aliantza bat indartzea eskatzen du, elkartasunean oinarritua, GJHak egikaritzeko baliabide ekonomiko eta finantzarioak mobilizatu eta inplikaturako eragile guztien parte-hartzea ere sustatuko duena, esparru lokalenetik hasita maila globaleraino, modu paraleloan sustatuz. Hori guztia Addis Abebako Ekintza Agendaren barruan kokatu zen, azken batean, 2030 Agenda finantzatzeko eta inplementatzeko bitartekoen gaiei buruzko gida izateak baliagarria izan behar zuen.

Plano nazionalen, herrialde bakoitzak bere garapen propioa aurrera eramateko duen autonomia aitortzen du 2030 Agendak. Alde horretatik, 2030 Agendaren eta GJHen inplementazioa maila nazionalen eta nazioaz azpiko mailan herrialde bakoitzeko gizarteak eta erakundeek garrantzitsutzat jotzen dituzten lehentasunen arabera izango da. Horrela, inplementazio prozesuak estrategia eta tresna multidimentsionalak behar ditu, GJHetan jasotako dimentsioak eta gaiak jasoko dituztenak, eta maila guztietako eragile inplikatuak lekua emango dietenak (nazionala, eskualdekoa, tokikoa). Hiru urte baino gehiago iraun zuen hausnakerta prozesua goitik beherakoa eta behetik gorakoa izan zen, eta hainbat eragilek parte-hartu zuen. Hala jasota dago, argi eta garbi, 2030 Agendaren ebazpenaren 45. paragrafoan:

“Aitortzen dugu, halaber, parlamentu nazionalak funtsezko papera jokatu dutela gure konpromisoak benetan egikaritzeko zereginean, legeria indarrean jarritz, aurrekontuak onartuz eta kontu-emateak bermatuz. Gobernuak eta erakunde publikoak ere lankidetzan estuan ariko dira, inplementazioan, eskualdeko agintariekin eta agintari lokalekin, azpieskualdeetako erakundeekin, nazioarteko erakundeekin, komunitate akademikoarekin, antolakunde filantropikoekin, boluntarioen taldeekin eta beste instantzia batzuekin”. (Nazio Batzuen Erakundea, 2015a: 13).

Logikoa denez, kasu bakoitzeko autonomia horrek zailtasuna ere badakar maila globaleko erantzukizuna esleitzeko, eta hori du ahulgune ageriko bat 2030 Agendak.

Estatu mailan

Espainiako Estatuaren mailan, hainbat instantzia sortu eta garatu dira 2030 Agenda eta GJHak inplementatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko. Prozesu honek kritika ugari izan ditu gizarte zibilaren aldetik, eta baita sektore politikotik ere. Instantzien artean lehenengoetakoa [2030 Agendarako Goi Mailako Taldea](#) abian jartzea izan zen, agenda eta GJHak koordinatzeko, jarraitzeko eta bultzatzeko organo moduan. Talde horrek, narratiba ofizialaren arabera, honako funtzio hauek ditu: a) agendaren edukiak sail guztietara eramanean, b) GJHak politika publikoen marko nazionaletan integratzen lagundu, c) Gobernuaren Arazo Ekonomikoetarako Ordezkaritza Batzordearen planak eta estrategiak aztertu, d) gizarte zibilarekiko komunikazioa bermatu, eta e) Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotutako lantaldeak sortu. Talde horren burua Gobernuko Presidenteorde eta Presidentziako, Gorteekiko Harremanetako era Berdintasuneko Ministroa da, eta hainbat ministeriok,

idazkaritzak eta idazkariordetzak osatzen dute, 2030 Agendarako Goi Komisarioarekin, Haurren Pobreziaren aurkako Goi Komisarioarekin eta 2030 Agendarako Misio Bereziko Enbaxadorearekin batera.

Arestian esan dugu Goi Mailako Taldean [2030 Agendarako Goi Komisarioak](#) parte hartzen duela; hain zuzen ere, bulego hori Gobernu Presidentziaren mende sortu zen zuzenean, eta teorikoki dituen funtzioak honako hauek dira: a) Estatuaren Administrazio Orokorraren organo eskudunen jardueren jarraipena egin garapen jasangarrirako helburuak eta 2030 Agenda egikaritzeko, b) Espainiak 2030 Agenda egikaritu dezan behar diren planen eta estrategien eraikuntza eta garapena bultzatu, c) 2030 Agendaren helburuen egikaritzean izandako aitzinamenduaren gradua ebaluatu, egiaztatu eta zabaldu, d) Kanpo Arazoetako Ministerioarekin, Europako Batasunarekin eta Lankidetzarekin lankidetzan aritu Espainiak 2030 Agendaren ezarpen globalari buruz duen nazioarteko elkarriketan, eta e) 2030 Agendaren helburuak egikaritzeko bidean egindako aitzinamenduak egiaztatzeko behar diren informazio eta estatistika sistemen eraikuntza bultzatu.

Horrez gain, badira Goi Komisarioaren Bulegoa hainbat eragilerekin eta erakunderekin koordinatzeko funtzioak dituzten beste instantzia batzuk:

- a) Ministerioen arteko Lantaldea: Goi Komisarioaren bulegoaren eta ministerioen arteko lanerako eta koordinazio aktiborako tresna bat da.
- b) Batzorde Nazionala: administrazio publikoen arteko lankidetzaren organoa da.
- c) Presidentearen Konferentzia: haren bidez egiten da 2030 Agendaren inplementazioaren koordinazioa lurralde osoan.
- d) Garapen Jasangarriaren Batzordea: Goi Komisarioaren bulegoaren aholkularitza organoa da, eta lankidetzakoa eta gizarte zibilaren parte-hartzekoa 2030 Agenda egikaritzeko, zeinaren bidez ahotsa duten hainbat erakundek eta antolakundek, hala nola hirugarren sektoreko plataformek, aholkulari batzordeek, unibertsitateek, enpresek eta sindikatuak, eta ekonomia sozialaren sektoreak.
- e) Munduko Itunaren Espainiako Sarea (REPM): zeinaren bidez egiten den sektore pribatuarekiko koordinazioa.

Instantzia eta erakunde horiek guztiek, bertsio ofizialaren arabera, 2030 Agenda eta GJHak Espainiako Gobernuaren *2030 Agenda inplementatzeko Ekintza Plan*ean jasotako politika nazionalekin eta planifikazio tresnekin integratzea eta lerrotzea ahalbidetzen dute (2018a). Planaren abiaburua 2030 Agenda eragile eta sektore guztiek egiten duten estatu politikaren parte moduan aitortzea da. Gero GJH bakoitzak diagnosi bat egingo du Espainia zer egoeratan dagoen aztertzeko, eta horren ondoren politikak, programak eta erakundeak GJHekin lerrotzeko elementuak hartzen ditu. Autonomia erkidegoen eta gobernu lokalen parte-hartzea ere aurreikusi da, agenda lokalizatzeko prozesuen bitartez. Horrez gain, Planak palanka-politika batzuk ditu, kasu honetan, "GJHen inplementazioa azeleratzeko, garapen jasangarri koherentea bultzatzeko eta Agendaren garapen osorako giltzarri diren alderdien gainean eragin azkarragoa eta iraunkorragoa izateko gaitasuna duten programak edo politikak" (Gallach, 2019: 4). Arlo jakin batzuetan neurri eraldatzaileak ere baditu. Hala ere, marko horretan guztian zalantza sakonak planteatu dira aurre egin zaien eraldaketei eta sortu den egiturari buruz, agendaren eta GJHen aitzinamenduei buruzko gizarte zibilaren 2018ko txosten batean islatuta geratu den moduan (Futuro en Común, 2018).

Estatuaz azpiko mailetan: autonomikoa eta lokala

Espainiako Gobernuaren *2030 Agenda inplementatzeko Ekintza Plan* jada aurrez aipatuan (2018a), hala autonomia erkidegoek nola erakunde lokalek 2030 Agendarekin duten konpromisoa jasotzen da. Euskadiren kasuan, Eusko Jaurilaritzan urrats batzuk egin dira, dokumentazio eta adierazpen mailan bederen. Alde horretatik, *Euskadi Basque Country 2030 Agenda* (Eusko Jaurilaritza, 2018) landu da, zeinak Eusko Jaurilaritzak eta haren politika sektorialen ekintzek 2030 Agendarekiko duten lerrotze eta laguntze maila islatzen duen. Agenda horrek 2016-2020 aldia jasotzen du. 17 GJHak hartzen ditu aintzat, eta lehentasuna ematen die 169 jomugen arteko 100 jomugari, hartutako 93 konpromisoren, 80 planifikazio tresnaren, 19 ekimen legegileren eta 50 adierazleren bidez.

Entitate lokalen kasuan, Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioa (FEMP) bihurtu da probintzien eta udalerrien esparruan 2030 Agendaren eta GJHen inplementazioa bultzatzeko mintzaidea. Espainiako Gobernuaren Ekintza Planak (2018a) aitortzen du FEMPe konpromiso irmoa hartu duela 2030 Agenda egikaritzeari dagokionez. Zentzu honetan erakunde honek, gizarte justuago, libreago, eta parekideagoa lortzeko ekintza plan modura hartzen du agenda. Ikuspegi horretatik begiratuta, FEMPe maila askotako parte-hartzerako mekanismo multieragilea garatu du, GJHein konprometitutako agente giltzarriekin eta gobernu irekiko printzipioetan oinarrituta.

Egindako aitzinamenduak aitortuagatik ere, kasu askotan, GJHetan dagoeneko egiten ari denari leku egokia bilatzeko joera ikusten da, Agendak eskatzen dituen moduko eraldaketak bultzatzekoa baino gehiago.

4.2. Jarraipena eta ebaluazioa

2030 Agendaren inplementazioaren eta GJHak egikaritzearen jarraipen eta ebaluazio prozesuaren ardura, aurrez ere komentatu den moduan, Nazio Batuen Garapen Jasangarriari buruzko Goi Mailako Foro Politikoa ([United Nations High-level Political Forum on Sustainable Development - HLPF](#)) du. HLPFk, Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak babestuta, 2030 Agendaren eta GJHen inplementazioaren eta egikaritzearen aldizkako azterketak eta jarraipenak egiten ditu. Azterketak boluntarioak dira, baina HLPFk horiek egitera bultzatzen ditu herrialdeak, aldizkakoak eta inklusiboak izan daitezela aholkatuz, eta maila guztietan (nazionala zein nazionalaren azpikoa) inplikaturik dauden eragile guztiei lekua egin diezaietela. Herrialdeen ardura da azterketa horien emaitzak HLPFri aurkeztea; herrialde bakoitzaren errealitateen, gaitasunen eta mailen arabera izan behar dute azterketek, baita haien marko normatiboen eta lehentasunen arabera ere. Jasotako informazioa eskualde zein mundu mailako ebaluazioak egiteko baliatuko du HLPFk, eta horiek arazoak atzemateko eta maila guztietan aholkuak formulatzeko baliagarri izango dira.

Oraingoz, HLPFk hiru bilkura izan ditu (2017an, 2018an eta 2019an). Horietako bakoitzean GJH espezifikoei buruz hitz egin da, eta hainbat herrialdek parte hartu dute beren txosten boluntarioak aurkeztuta. Horrela, 2017ko bilkuran landutako gaia *Eradicating poverty and promoting prosperity in a changing world* izan zen; 1., 2., 3., 5., 9. eta 14. GJHak sakon aztertu ziren, eta beren txosten boluntarioak aurkeztu zituzten herrialdeak 43 izan ziren. 2018ko bilkuraren gaia *Transformation towards sustainable and resilient societies* izan zen; 6., 7., 11., 12., 15. eta 17. GJHak landu ziren, eta 46 herrialdek aurkeztu zituzten beren txosten boluntarioak, Espainia horien artean zelarik. Eta, berrikiago, 2019an, HLPFren bilkuraren gaia *Empowering people and ensuring inclusiveness and equality* izan zen; 4., 8., 10., 13., 16. eta 17. GJHak aztertu ziren, eta txosten boluntarioa 47 herrialdek aurkeztu zuten. Espainiaren kasuan, gobernuak txosten boluntarioa aurkeztu zuen HLPFren 2018ko bilkurara (Espainiako Gobernuak, 2018b), eta, ikuspegi ofizialetik, 2030 Agendaren eta GJHen inplementazioan egindako aitzinamenduak erakutsi zituen, ekintza maila guztietan, aurrez aipatutako 2030 Agenda inplementatzeko Ekintza Planean jasotakoak³.

Maila globalean, eta *Garapen Jasangarriko Helburuen 2019ko Txostenaren* (Nazio Batuen Erakundea, 2019) eta HLPFren azken bilkurako txostenaren (United Nations-HLPF, 2019) arabera, 2030 Agendaren inplementazioaren eta GJHen egikaritzearen jarraipen eta ebaluazioko lehen urte hauek aitzinamenduak eta aldeko joerak erakusten dituzte hainbat arlo kritikotan, hala nola muturreko pobrezia eta 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasaren aurkako borrokan, argindarraren eskuragarritasunean, itsasguneen babesean eta legez kanpoko arrantzaren aurkako borrokan, klima aldaketaren aurkako borrokan, ekoizpen eta kontsumo jasangarriko ekimenen sustapenean, beste batzuen artean. Hala ere, agerian geratu dira atzerapen eta mantsotze handiak beste arlo batzuetako eraldaketetan, urgentziaz arreta eman beharrekoak, hala nola ozeanoen azidotzea, bioaniztasunaren galera bizkorra, zoruen endekapena, indarkeriazko gatazken ugaritzea, hondamen naturalekiko kalteberatasuna eta emakumeen diskriminazioa, beste batzuen artean.

3 Espainiak aurkeztutako txosten boluntarioari buruzko informazio guztia, hainbat eragileren txosten eta balorazioak barne direla, honako lotura honetan kontsultatu daiteke: [<https://sustainabledevelopment.un.org/index.php?page=view&type=30022&nr=893&menu=3170>].

Beste instantzia batzuek, nazioarteko mailan antolatutako gizarte zibilaren jarraipeneko txostenak adibidez, berretsi egin dituzte HLPFren txosten ofizialek erakutsitako hainbat GJHren inguruko joera negatiboak, eta areago ere jo dute, nabarmenduz gobernu gehienek oraindik ere ez dutela lortu 2030 Agendaren ikuspegi eraldatzailea bereganatu eta politika eta eraldaketa benetan sakon eta erreal bihurtzea, eta, horrenbestez, ez dagoela egikaritzeko behar den bidean (Spotlight on Sustainable Development, 2019).

5. Azken gogoetak

Dokumentuaren hasieran esan dugu krisi global batean gaudela, zeina sistemikoa den, hau da, gizarteari, ekonomiari eta ingurumenari eragiten dioten arazoetan adierazten den, eta ikuspegi halaber sistemikoa behar dela arazo horiei aurre egiteko. 2030 Agenda eta GJHak erantzun global moduan sortu ziren krisi horri modu integral eta inklusiboan erantzuteko, eta 80ko eta 90eko hamarkadetako urteetan hasitako, Milurtekoko Agendaren Adierazpenarekin eta milurteko berriaren hasieran MGHen Agendarekin jarraitutako eta Rio+20 Garapen Jasangarriari buruzko Goi Bileran burututako garapenari buruzko eztabaidek abiatutako garapenerako agenda global baten garapenaren bidean beste urrats bat da. Perspektiban ikusita, ibilitako bideak logikoa eta egokia dirudi.

Hala ere, 2030 Agendaren eta GJHen diskurtsoak, kontakizunak eta praktikak gaur egungo krisi globaleko egoeran benetako eraldaketa bat sor dezaten, eta mundu justuago, parekideago eta jasangarriago baterantz jotzeko, aintzat hartu behar da, Martínez-Osesek eta Martínezek argudiatzen duten moduan (2015) agenda hau ez dela ezarritako eta definitutako marko bat, nazioarteko politika ekonomikoaren emaitza baizik. Hau da, eragileen arteko (gobernuak, sektore pribatua eta enpresa transnazionalak, Nazio Batuen Erakundeko sistemako antolakundeak, gizarte zibilaren antolakundeak eta abar) botere balantzearen emaitza, horietako bakoitza agendaren eta GJHen bere interpretazioa, diskurtsoa eta praktika nagusitu dadin saiatzen baita. Alde horretatik, ez baldin badago eragile guztiei lekua egingo dien adostasun eraikitzailerik, 2030 Agendaren ekintza eraldatzaileak "adostasun paralizatzaile batera" jo dezake, eta "txikia geratu daiteke errealitatearen dinamismoaren eta boterearen etengabeko eraldaketaren eta lekualdatzearen aurrean" (Martínez-Oses eta Martínez, 2015: 99), MGHeekin gertatu zen moduan.

Oraindik ere goiz da 2030 Agendaren eta GJHen inplementazioaren eta egikaritzearen ebaluazio sakona egiteko. Hala ere, lehen urte hauetako txostenek erakusten dute ahalegin handiak egin beharko dituztela herrialde guztiek, arlo askotan, zehaztutako helburuetara iritsiko badira.

6. Bibliografia

ALKIRE, Sabine (2010): "Human Development: Denitions, Critiques, and Related Concepts", *Human Development Research Paper*, 2010/01, United Nations Development Programme, New York.

ALONSO, José Antonio (2016): "La Agenda 2030 para el desarrollo sostenible: ¿una agenda transformadora?", in: FUNDACIÓN SEIPAZ (arg.): *El mundo que queremos. La agenda 2030*, Mira Editores, Zaragoza, 317-345.

ECONOMISTAS SIN FRONTERAS (2014): "Los Objetivos de Desarrollo del Milenio: un balance casi final", in: MARTÍNEZ, Ignacio eta María Luisa Gil Payno (koords.): *Y después de 2015, ¿Qué hacemos? XII informe anual de la plataforma 2015 y más*, Plataforma 2015 y más, Madril, 11-39.

ESPAINIAKO GOBERNUA (2018a): *Plan de Acción para la implementación de la Agenda 2030. Hacia una Estrategia Española de Desarrollo Sostenible*, (2019ko maiatzaren 26an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [<http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/SalaDePrensa/Multimedia/Publicaciones/Documents/PLAN%20DE%20ACCION%20PARA%20LA%20IMPLEMENTACION%20DE%20LA%20AGENDA%202030.pdf>].

ESPAINIAKO GOBERNUA (2018b): *Informe de España para el Examen Nacional Voluntario 2018*, (2019ko maiatzaren 26an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [<https://www.agenda2030.gob.es/sites/default/files/recursos/INFORME%20DE%20ESPAN%CC%83A%20PARA%20EL%20EXAMEN%20NACIONAL%20VOLUNTARIO%202018.pdf>].

- EUSKO JAURLARITZA (2018): *Euskadi Basque Country Agenda 2030. Euskal Ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari*, (2019ko maiatzaren 27an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [<https://www.euskadi.eus/garapen-jasangarrirako-2030-agendari/web01-s1leheki/eu/>].
- FUTURO EN COMÚN (2018): *Una Agenda 2030 transformadora para las personas y el planeta. Propuestas para la acción política* (Informe de la Sociedad Civil), (2019ko irailaren 16an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [https://futuroencomun.net/wp-content/uploads/2018/10/informe_desde_la_sociedad_civil_final.pdf].
- GALLACH, Cristina (2019): "La decidida apuesta española por los ODS", *Política Exterior*, 90, 1-8.
- LANDER, Edgardo (2011): "Los límites del planeta y la crisis civilizatoria", *Revista Venezolana de Economía y Ciencias Sociales*, 17 (1), 141-166.
- MARTÍNEZ-OSÉS, Pablo (2016): "La Agenda 2030: Contradicciones, transformaciones y resistencias", *Boletín de recursos de información de HEGO*, 49, (2019ko maiatzaren 10ean kontsultatua); online eskuragarri hemen: [<http://boletin.hegoa.ehu.es/mail/46>].
- MARTÍNEZ-OSÉS, Pablo (2017): "Hacer realidad la Agenda: medios de implementación, revisión y seguimiento", in: UNESCO Etxea (arg.): *Transformar nuestro mundo, ¿realidad o ficción? Reflexiones sobre la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*, Garcinuño Comunicación Gráfica, Bilbo, 105-119.
- MARTÍNEZ-OSÉS, Pablo eta MARTÍNEZ, Ignacio (2015): "La Agenda 2030: ¿cambiar el mundo sin cambiar la distribución del poder?", *Lan Harremanak*, 33, 73-102.
- NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (2000): *Milurtekoko Adierazpena*, irailaren 13ko Batzar Nagusiaren Ebazpena, A/55/L.2, New York, (2018ko maiatzaren 20an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [<https://www.un.org/spanish/milenio/ares552.pdf>].
- NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (2012): *Nahi dugun etorkizuna*, uztailaren 27ko Batzar Nagusiaren Ebazpena, A/66/L.56, New York (2019ko maiatzaren 25ean kontsultatua), online eskuragarri hemen: [https://www.un.org/en/ga/search/view_doc.asp?symbol=A/RES/66/288&Lang=S].
- NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (2015a): *Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda garapen jasangarrirako*, irailaren 25eko Batzar Nagusiaren Ebazpena, A/70/L.1, New York, (2019ko maiatzaren 30ean kontsultatua); online eskuragarri hemen: [<https://undocs.org/es/A/RES/70/1>].
- NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (2015b): *Milurtekoko Garapen Helburuak. 2015eko txostena*, New York, (2019ko maiatzaren 20an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [<http://mdgs.un.org/unsd/mdg/Resources/Static/Products/Progress2015/Spanish2015.pdf>].
- NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (2019): *Garapen Jasangarrirako Helburuen Txostena 2019*, New York, (2019ko maiatzaren 20an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [https://unstats.un.org/sdgs/report/2019/The-Sustainable-Development-Goals-Report-2019_Spanish.pdf].
- PNUD (1990): *Informe de Desarrollo Humano 1990*, Tercer Mundo Editores, Bogotá.
- SANAHUJA, José Antonio (2014): "De los Objetivos del Milenio al desarrollo sostenible: Naciones Unidas y las metas globales post-2015", in: MESA, Manuela (koord.): *Focos de tensión, cambio geopolítico y agenda global. Anuario 2014-15*, CEIPAZ, Madril, 49-83.
- SANAHUJA, José Antonio eta TEZANOS, Sergio (2017): "Del milenio a la sostenibilidad: retos y perspectivas de la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible", *Política y Sociedad*, 54(2), 533-555.
- SEN, Amartya (1990): "Development as capability expansion", in: GRIFFIN, Keith eta KNIGHT, J. (arg.): *Human development and the international development strategy for the 1990s*, Macmillan, Londres, 41-58.
- SPOTLIGHT ON SUSTAINABLE DEVELOPMENT 2019, *Reshaping governance for sustainability Transforming institutions - shifting power - strengthening rights*, Global Civil Society Report on the 2030 Agenda and the SDGs, (2019ko irailaren 16an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [https://www.2030spotlight.org/sites/default/files/spot2019/Spotlight_Innenteil_2019_web_gesamt.pdf].

SOTILLO, José Ángel (2015): *El reto de cambiar el mundo. La Agenda 2030 de desarrollo sostenible*, Madrilgo Unibertsitate Complutense eta Catarata, Madril.

UNCETA, Koldo (2015): *Más allá del crecimiento. Debates sobre desarrollo y posdesarrollo* (I. kapitulu), Mardulce, Buenos Aires.

UNCETA, Koldo (2016): "Los Objetivos de Desarrollo del Milenio (ODM) y la lucha contra la pobreza en el marco de las estrategias de desarrollo", in: FUNDACIÓN SEIPAZ (arg.): *El mundo que queremos. La agenda 2030*, Mira Editores, Zaragoza, 19-42.

UNCETA, Koldo eta GUTIÉRREZ-GOIRIA, Jorge (2018): "International Cooperation and the development debate: the shortcomings of theory versus the allure of agendas", *Revista de Economía Mundial*, 50, 107-126.

UNITED NATIONS-HLPF HIGH-LEVEL POLITICAL FORUM ON SUSTAINABLE DEVELOPMENT (2019): *Empowering people and ensuring inclusiveness and equality. Report of the Secretary-General*, E/2019/65, Economic and Social Council, New York, (2019ko uztailaren 27an kontsultatua); online eskuragarri hemen: [<https://undocs.org/E/2019/65>].

- 1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
- 2. Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
- 3. Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 4. Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eguiren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 5. Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 6. Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 7. Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 8. Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 9. XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
- 10. Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efren Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
- 11. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

